

## ERRETRATUA

Ohituta nengoen etxe hartako horma guztiak margolanez estalita ikusten. Etxea deitu diot, baina jauregi bat zen; lurretik sabaira, zehazki ez badakit ere, hamarren bat metro koadro egongo ziren, eta horrek artelan gehienak haur eta ez hain haur baten begietatik oso urruti uzten zituen. Udak, Eguberriak eta zenbait asteburu igarotzen genituen bertan familia handi hartako kideok. Guretzat etxe arrunta zena, ez zirudien horren arrunta gure gonbidatuentzat, norbait etortzen zen bakoitzean liluraturik geratzen baitzen gauzei begira, batez ere margolanei. Udak ibaian igarotzen genituen; esnatu, gosaldu eta korrika joaten ginen lehengusu guztiak ikaragarritzko jostailu eta tramankulu pilarekin. Eguberriak, berriz, sutondoan ematen genituen, familia kontuetan. Asteburuak aspergarriagoak ziren, izan ere, senide gehienak hirian geratzen ziren beren lanetan. Gu, berriz, motxila etxeko lanez bete, kotxea hartu eta bagindoazen hara.

Aitona eta amona beti han zebiltzan. Aitonak egunak pasatzen zituen hormak margotzen, atek konpontzen edo artelanak zintzilikatzen; amona uneoro zegoen txokolate bero bat jartzeko prest. Imaginatuko duzuen bezala, etxe hura oso handia zen, eta ez zen oso erraza, batez ere neguan, txoko goxo bat aurkitzea, baina nik banuen, amonaren laguntzaz, nire txokoa: eskailerak igo eta ezkerretara zegoen azkenengo gelatxoa zen txoko hori. Etxeko gela txikiena izango zen, mahai bat eta besaulkia besterik ez zuen-eta, baina han ere, lehen esan bezala zaila zen horma zati bat ikustea, erretratuz betea baitzegoen. Ohiturarengatik nire atentziora lortzen ez zuten erretratu haien artean, bazegoen bat lanean ari nintzenero nire begirada

erakartzen zuena. Ez nuen inoiz ulertu zergatia, baina blokeatzen nintzen bakoitzean haren begietan bilatzen nuen laguntza, energia arraro bat transmititzen zidan, berak argitzen zizkidan izan nitzakeen zalantza guztiak. Aitonari behin eta berriz galdetzen nion emakume hartaz: Nola zuen izena? Noiz jaioa? Familiakoa?... Aitona urduri samar jartzen zen nire insistentzia harekin, baina beti erantzun bera jasotzen nuen: erretratu hura Frantzia iparraldean kaleko batean erositzen zen, eta ez zuen familiarekin zerikusirik.

Aitona eta amona jadanik ez daude gurekin, eta gure etxea zatikatzeko eta bertako ondasun guztiak banatzeko unea heldu da. Ez dakit zergatik, edo beharbada bai, eskolako lanak egiten nituen bitartean begira nuen emakume hura hemen dut nire Donostiako etxean, eta aitonak erantzun nahi izan ez zizkidan galdera guztien erantzunak erretratuaren atzealdean itsatsitako gutunazal horitu eta zaharkitu batean aurkitu ditut. Gutunak hauxe zioen:

“Nora maitea, zenbat aldiz galdetu didazu emakume honi buruz. Eta, zenbat aldiz erantzun dizut ez nekiela ezer. Gaur egun oraindik gaztetxo bat besterik ez zara, baina egia zor dizut. Emakumea Clementine Morceau da, 1922an Frantzian jaioa, Bordeleko familia arrunt batean. Dakizun bezala, nik medikuntza ikasketak egin nituen Bordelen eta bertan bizi izan nintzen sei urtez. Nahiz eta unibertsitatea oraindik itxita egon, abuztuan joan nintzen Bordelera; egokitzeko, hiria ezagutzeko eta bizitza antolatzeko denbora behar nuen. Primeran oroitzen naiz lehen egunez, nahiko gogorrak izan ziren-eta. Abuztuko lehenengo astean iritsi nintzen, lehenengo hilabeteko logela ordaindua nuelarik erdiguneko pentsio txiki batean. Etxean ez zegoen diru arazorik, eta segituan jarri nintzen pisu baten bila. Abuztua bukatzean zegoenean dena prest nuen: hiria arakatzeko igaro nituen goizak, pisu xarmangarri bat alokatua nuen, eta egunero arratsaldeko zazpitan frantseseko

klaseak jasotzen nituen hizkuntza perfektionatzeko. Iritsi zen unibertsitateko lehen eguna. Urduri nengoen baina dena ondo aterako zela sentitzen nuen. Unibertsitatea ikaragarria zen: sabai altuak, pasilo zabalak eta ehun gela inguru zituen. Nire gela: 73. zk. Lehenengo egunak ez ziren batere samurrak izan; ez nuen inor ezagutzen, nire frantsesa neronek uste baino kaxkarragoa zen... Baina han nengoen, txiki-txikitatik nuen ametsa betetzeko prest, eta oztopo guztiak gainditzen banituen nire osabarik mirestuena bezala mediku izango nintzen.

Garai haiek ez ziren unibertsitatera iristeko aproposenak, are gutxiago emakume batentzat, baina hirugarren egunean, gizonezko gazte haien guztien artean han zegoen eserita Clementine. Ez dakit nola, baina ikasketa giro hartan berehala izan nuen berarekin hitz egiteko aukera. Haren ausardiak hasieratik harritu ninduen, baina argi zegoen bera ere amets baten bila zebilela.

Sei urte haiek ikasketa, adiskidetasun eta amodioko urteak izan ziren. Ez genuen gure etorkizunaz eta nire itzuleraz inoiz hitz egiten, zoriontsu ginen... egun hotz eta euritsu hark guztia desegin zuen arte, Bordeleko kale ilun batean.

Hemen duzu hainbeste galdera sortu dizkizun erretratua, zuretzat betiko."